

## Formak hitz- erdika

Ruiz de Eginoren  
lanak, Aranburun ▶ 2



KARMELE GOÑI ▶ ANTROPOLOGOA

## «Kanpoko ezagutzeak neurea gehiago maitatzen lagundu dit»

**SARIA** ▶ Sabino Arana  
Fundazioaren saria jaso berri du  
Bilbon bizi den tolosarrak

**LANA** ▶ Euskararen eta euskal  
kulturaren aldeko lan handia egin  
du hainbat ataletan ▶ 4-5



Karmele Goñi. HERNAEZ/ARGAZKI PRESS

ASTEASU ▶



NOELIA LATABURU

### Herri kirol festa izan da Andazarrate parkean

Idi proba, motozerra,  
zaldiak, aizkolariak...  
izan dira ▶ 6

TOLOSALDEA-  
LEITZALDEA ▶

### Bidali argazkiak HITZA lehiaketara

Apirilaren 13 bitarte  
bidal daitezke; sari  
ederrak daude ▶ 3



### ‘Urrats sendoak ematen’ Aberri Egunean

**TOLOSALDEA** ▶ Herenegun, Aberri Eguna zela eta, Udaltzuzak egindako *Urrats sendoak ematen* izeneko adierazpena berretsi zuten Tolosaldeko hainbat herritan egindako ekitaldietan. Ikurrinari omenaldiak eta hamaiketakoak izan ziren ekitaldi horietan. Leaburun, ekitaldi hauekin batera, Saharako Guelta

herriarekin anakidetzeko lehen urratsak eman zituzten. Fronte Polisarioko ordezkaria izan zen bertan eta plaka bat jarri zuten udaletxe atarian, euskaraz eta arabieraz, bi herrien arteko elkarretaratzearen lekuko gisa. Argazkian, Tolosako ekitaldia, Tolosa Bizirik-eko ordezkariak adierazpena irakurtzen ari direla. **HITZA** ▶ 7

## ERAKUSKETA ▶

**Materiala.** Aluminioa, buztina, brontzea... LEIRE MONTES**Aranburun, estreinakoz.** «Erronka» izan dela dio: «Gogoa nuen probatzeko ea hau betetzeko gai nintzen». LEIRE MONTES**'Antropozooformak'.** Gizaki eta abere formak eta hibrido modukoak aurki daitezke erakusketan. L. MONTES**Itxuraldaketa.** Eskulturrek forma desberdinak dituzte nondik begiratzen zaien arabera. LEIRE MONTES**Marrazkiak.** Eskulturez gain, egileak berak egindako marrazki koloretsuak ikus daitezke Aranburu Jauregi horretan. LEIRE MONTES**AITOR RUIZ DE EGINO** ▶ ESKULTOREA

## «Gauzak hitz-erdika esatea gustatzen zait, bakoitzak bere bertsioa emateko»

**Leire Montes** ▶ Harekin egin dugu bidaia Aranburu Jauregi-ko aretoetan barrera. Egileak berak azalduz gero, erakusketa ulertzea errazagoa dirudi. Teknika eta bere lana izan ditu hizpide solasaldian Aitor Ruiz de Eginoko eskultoreak (Hernani, 1971). Baina, batez ere, bizipenak: piezen esanahia, haiekiko sentipenak. Dena den, eskultura bakoitzak «pertsonek adina esanahi» duela dio. **Aluminioa, brontzea, zeramika, buztina...** Teknika asko lantzen dituzu. Ba al duzu bereziki gusturik? Ez nuke bakarrik aukeratu. Duela bederatzita urte hasi nin-

tzen zeramika lantzen, eta orain arte gehienbat horretan aritu naiz. Baina denetik probatu nahi nuen, neure kabuz esperimentatzen gozatzen eta ikasten baitut. Buztina erabiltzean hutsetik hasten zara, sortu egin behar duzu; bestee-kin, duzun piezari kentzen eta forma ematen joan behar duzu. 2003an egin nituen brontzezko pieza batzuk ekarri ditut Aranburura, baina gehienak ia azarotik hona eginikoak dira. **Hormetako marrazkiak ere zuzen eginak dira...** Gustuko dut marraztea. Tinta txinatarrez egindakoak, akrili-

koak eta olioak dira. Etxean egiten ditut. Eskulturak, aldiz, Artelekun, Errape taldekoekin [Hernaniko artistak biltzen dituen taldea], Kultur Etxean... Han ikasten dut; baita Koldobikako Jauregi maisuarekin ere. Hernaniko enpresa batean ere fundizioan laguntzen didate... Bide batez, guztiei eskerririk beroan emateko aprobetxatu nahi dut. **Inspirazioa, nondik?** *Antropozooformak* du izenburu erakusketak, gizakiak eta abereak, eta hibrido moduko batzuk, jasotzen dituelako. Baina, orokorrean, ez dut beti gai bera jorratzen.



LEIRE MONTES

**Piezei ere izenik jartzen al diezu?**

Normalean ez diet izenik jartzen; orainoan, ordea, era berezian egin dugu. Hernaniko, Bartzelonako eta Errenterriko lagun batzuei, idaztea gustuko dutenei, piezen argazki bana bidali nien; haiek izan dira lanei izenburua jarri dietenak, eta batzuek testutxo bat idatzi dute, gainera.

**Pertsonek adina esanahi dagoela diozu...**

Gauzak hitz-erdika esatea gustatzen zait, bakoitzak bere bertsioa eman dezan. Pieza bakoitzak hamaika esanahi ditu: horiek agertzen direnean dago bizirik lana. Eskulturak alde askotatik begiratzea gomendatzen diet ikusleei: ezustekoren bat baino gehiago jasoko dute. Jolastea da polita, bai ikusleentzako bai nire lanerako. ◀

**ERAKUSKETA** ▶

**Zer.** *Antropozooformak*.  
**Nork.** Aitor Ruiz de Eginoko.  
**Non.** Aranburu Jauregia.  
**Noiz.** Apirilaren 16a arte, 17:30etik 20:30era, astelehen eta jai egunetan izan ezik.

LEHIAKETA ▶

# Opor hauetan jasotako irudiak bidal daitezke jada HITZA argazki lehiaketara

Epea apirilaren 13an amaituko da; paperean, diapositiban edo digitalean bidal daitezke; irabazleentzat afari eta produktu sorta ederrak izango dira



Aste Santu honetan ateratako irudian, Anie mendia elurtuta. LEIRE MONTES

## JOXEMI SAIZAR

Aurrekoan iragarri bezala, gaurtik aurrera bidal ditzakezue jada Aste Santuko opor hauetan ateratako irudiak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK antolatutako argazki lehiaketara. Seguraski argazki kamara eramango zenuten zuekin oporretara. Mendian, hondartzan, hiriren batean, urrutiko paradisuetan, hemen inguruko txoko ederretan, elurretan, irla batean, basamortuan, familiarekin, lagunekin, bikotearekin, bakarrik...

jaso duzuen irudi bitxi, orijinal, ikusgarri hori aurkeztera animatu zaitezte. Sari ederra lor dezakezue.

Lehenbailehen bidali behar dira argazkiak, apirilaren 13a izango baita zuen lanak jasotzeko azken eguna. Edozein formatutan bidal daitezke argazkiak: paperean, diapositiban edo digitalean. Azken kasu honetan, gutxienez bereizmena edo kalitatea eskatzen da, argitaratu ahal izateko. Kopuru aldetik ez dago mugarik, nahiz adina argazki bidal daitezke lehiaketara.

Zuen datuekin batera, HITZARA bidal ezazue argazkia, ondoko koadroan jartzen duen helbide horietako batera. Apirilaren 13a baino lehen bidali behar da. Ez gehiegi luzatu, bestela aukera galduko duzue eta.

## Irakurleak epaimahai

HITZAK izendatutako epaimahaiak aurkeratuko ditu bidalitako guztien artean zortzi argazki finalistak eta apirilaren 17an argitaratuko dira HITZAN bertan.

Ondoren irakurleen txanda iritsiko da, beraiek bere bote bidez aukeratuko baitituzte zortzi argazki finalista horien artean hiru argazki irabazleak eta apirilaren 24ean publikatuko dira, bere egileekin batera.

Zuek lehiaketara bidalitako argazki horiek egunkarian eta webgunean ikusi ahal izango dituzue. Gerora, HITZAREN artxiboan geldituko dira irudi horiek eta behar dituen argitaratzeko eskubidea izango du.

## Sari ederrak

Eta garrantzitsuena falta da. Argazkiak lehiaketara bidaltzera animatzeko motibazio garrantzitsuena: sariak. Argazki lehiaketako irabazleek sari ederrak izango dituzte opari gisa.

Irabazleak Berrobiko Iriarte jatetxe ospetsuan lagun batekin afari ederra dastatzeko aukera izango du. Ez da makala! Bigarren sailkatuak ere ez du nolana hiko saria: bi lagunentzako afaria Adunako Zabala sagardotegian. Eta hirugarrenak berriz, Mahala etxeko produktu naturalen saski aparta jasoko du.

Ez dago gaizki, ezta? Bada, badakizue: Aste Santu honetako opor egunetan ateratako argazkien artean aukeraketa bat egin eta bidal ezazue HITZARA. Argitara eman eta, lehen aukeraketan finalera pasatuz gero, irakurleen botoen bidez, sari ederra lortzeko aukera izango duzue.

## OINARRIAK ▶

### EPEAK

- ▶ Argazkiak bidaltzeko, apirilaren 13 arte.
- ▶ Apirilaren 17an aukeratutako zortzi argazki finalistak argitaratuko dira.
- ▶ Apirilaren 24an irakurleek aukeratutako hiru argazki irabazleak argitaratuko dira.

### BALDINTZAK

- ▶ Argazkiek Aste Santuko oporretakoak behar dute izan.
- ▶ Argazkiak paperean, diapositiban eta formatu digitalean onartzen ditugu.
- ▶ Argazki digitalek, gubkienez, ezaugarri hauek izan behar dituzte: 8 zentimetroko zabalera eta 250eko bereizmena.
- ▶ Jari behar diren datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Horrez gain, argazki non eta noiz egin den adierazi beharko da, eta zer ikusten den ere labur idatzi.
- ▶ Jasotako argazkiak artxiboan gordeko ditugu, eta HITZAK behar dituen argitaratu ahal izango ditu.

### NORA BIDALI

- ▶ Posta elektronikoa: tolosaldean@tolosaldekohitza.info (lehiaketarako dela jarri).
- ▶ Posta arrunta: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorbidea 5, atzea. Tolosa 20400
- ▶ HITZAREN egoitzara ekarri: Araba etorbidea 5, atzea. Tolosa.

### SARIAK

- ▶ Lehenengo saria: Afari eder bat bi lagunentzat Berrobiko Iriarte jatetxean.
- ▶ Bigarren saria: Afari eder bat bi lagunentzat Adunako Zabala sagardotegian.
- ▶ Hirugarren saria: Leaburuko Mahala baserriko produktu naturalen sorta aparta.

**www.tolosaldekohitza.info**

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

**eztabaidako galdera berria:**

nola ospatu duzu Aberri Eguna? eta nola ospatu beharko litzateke



IKURRINA JARRIZ ▶ EKITALDIETAN PARTE HARTUZ ▶ KANPOAN ▶ EKITALDI GEHIAGO

KARMELE GOÑI ▶ ANTROPOLOGOA

# «Neurea gehiago maitatzen lagundu dit kanpokoak ezagutzeak»

Euskararen eta euskal kulturaren aldeko langile nekazina da; sasoi batean, dozenaka kontutan sartuta ibili zen, euskararen iraupena bermatu nahian; ezin dela erretratu dio

ONINTZA ENBETA / BERRIA

Asko dauka kontatzeko. Izen bat, eta beste bat, eta beste bat... paporatzen ditu. Arrabio amaigabea da Karmele Goñiren burua. Behinola, Nafarroako harrobi batean aurkitutako buzeturrak eraman zitziok Barandiaran motaon, mugaz bestalde jasotako mezuak mugaz hontzez ekarri izan; bere alabak batxilerra egiteko eskola baten bila ibili zen Bilbo guztian, onarritako hezituntza ikastolan egin eta guztelantze ez zekela esaten ziotelako eskola guztietan. Eta beste haizak kontu. Bizi oso bat arlo pertsonalean eta lan arloan Euskal Herriari lotuta. Sabino Arana Fundazioaren Biltza Osoko bilbidetaren Saria jaso berri du.



JON HERNÁIZ / AGACÓN PRESS

**Biltza osoko bilbidetaren saria da. Badago hori laburtzerik?**  
Gure gazte denboran, euskal bizi-modua ezagutzeko modu bakarra familia euskaldunengan jaiotzea zen. Kalean ezin zen politikaz hitz egin. Gero, erantzuten gertutuen Radio Londres, Aita Onandikiak Partetik egindako kronikak, Joseba Elosegi oso gazte ezagutu gurean... Konturatu gabe sartu ginen bihotzean generam bizi-modu hartan. Era berean, gure etxean oso irekiak ziren. Aitak Suitzari ikasi zuen, eta ama Pauei egon zen barnetegit batean ikasle Oso gazte ezagutu nituen Paris eta Londres. Gure garaiko garteeak baino gehiago ikusi genuen. Frantsesa eta ingelese ikasi genituen, eta horrek beste bide bat irekitzen digu. Uda, berri, Zerainen pasatzen genuen, amonaren etxean. Baserriko bizi-modua ezagutu genuen. Niretzat, bi biltza horiek edukitzea oso izan da. Ikasi dugu zer den euskaldun biltza, eta ez diu hausti beste mundukoio lotura. Biltza biak batu nituenen konturatu nintzen zer zen bada eta zer beste, eta niretzat oso aberagarria izan da hori. Konturatu nintzen badagoea bizi-modu bat euskaldunena bakarrik dena. **Euskaldunena bakarrik zen mundu hori ikertu nahian eraman zintuen Aranzadi?**

Oso gazte hasi nintzen Aranzadin. Herriaren alde lan egiteko aukera neukala ikusi nuenen sartu nintzen. On Jose Migel Barandiaranek jarri zidan bidea. Kulturari lan egitea ere Euskal Herriaren alde egiteko bidea zela erakutsi zidan. Bide asko zirela, eta bat hori zela. **1946an sortu zenuten Aranzadin Etnografia taldea, baina**

**bazenekiten zehazki etnografia zer zen?**  
Ez ginen ondo konturatu, hasieran behintzat. Askoz lehenago itxasi nengoen ri, adibidez. Zeraingo gauzak jasotzen. **Nola hasi zinen bada?**  
Gure amona kontu kontalaria zen. 16 bat urterekin hasi nintzen haren esanak jasotzen.

Amonak hartu-emanak zeukan inguruko emakumeekin, eta, ezbera etortzen zirenean, behetxo suaz pizten genuen, eta haiek kontatzen zutena jasotzen nuen. **Bazenekiten, baina, haren zenuena garrantzitsua zen?**  
Nire baitan pentsatzen nuen nura jaso egin behar zela, baina ez nekien zergatik. Arrazoi

jakirik ez neukan. Artzainak Urbitatik etortzen zirenean, koaderno hartu, eta eguzkia sartu arte jarluten nuen haiekin kontu kontari. Argitaratu nuen lehenean liburua Zeraingo artzain biei buruzkoa izan zen. Kontatzen zidaten nola suz egiten zuten otsoa ez etortzeko, nola hilzen zituzten otso zain aserak, ardi guztiak izena zutela, nori eskatzen zioten lagutasuna, ardi bizkorrenari jarritako kutinak, gazta nola egiten zuten... Jose Migel Barandiaranen urtekaririk lortu nituen, trampa eginda, eta haiek in ikasi nuen gauzak hobeto egiten. Urte pare batera, Aranzadin sartu nintzen, eta han, On Jose Migelekin galdetegiak zuzaltzen. Zerua izan zen! Baserriko zelazak zer galdetegi Hilaibeteen behin, batzarra egiten genuen, eta han denak ziren gure jakintzak: Joseba Elosegi, Iñaki Barriola, Luis Peña Basurto...

**Gizon guzian gutien artean, zein zen zure lana Aranzadin?**  
Idazkaria nintzen, baina, batez ere, ikasi egin nuen nek Aranzadin. Aitak hartzen nuen hileko eta gero garbita pasatu, hurrengo hilean onartzeko. Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen sartu ginen. Beotela ez ziguten emango baimenik euskal kulturaren alde ezer berrik egiteko. Orduan, hain berritako aial moduan sartu ginen. Babestuta geunden, baina gure kasa funtzionalizatzen genuen. Botoa ere pasatu genuen. Jardunaldiak antolatu genuten, eta hainbat lekutatik etorri zen jendea. Katalunia, Nafarroa... Bakoztatik bere esperientziak ekartzen zituen, eta gero eta hobeto ezagutzen genuen gure herria. Gure uirbertatzean izan zen. **Horrelako kontuetan emakume gutxi ibiliko zen?**

Bakoztatzen nintzen. **Inoiz pentsatu zenuen emakume izanda atek irekitzen ari zirenik?**  
Nik dena normalizatzen hartu nuen. Ez zitzaidan iruditzen diferentzia nintzenik. Lagun guztiak edonon da zuden ordurako. **Bazenekiten, baina, haren zenuena garrantzitsua zen?**  
Nire baitan pentsatzen nuen nura jaso egin behar zela, baina ez nekien zergatik. Arrazoi

### DI-DA BATEAN ▶

Tolosa. Iasoferria. Biztza osatua. **Jose Migel Barandiaran.** Masusia eta laguna. **Euskar.** Nire hizkuntza. **Etnografia.** Euskal Herria gehiago maitatzen lagundu dit. **Zer utzi duzu ikertzeak?**  
Gauza gehiegi; gehiena. **Zerk eman dizu biltza osoan lantzen jarraitzeko indarra?**  
Euskaldunak izateak.

pasatzen nuen. Amak, 20 urte bete nituenean, moto bat oparitu zidan, eta On Jose Migelekin joaten nintzen astean bi edo hiru aldiz. Zenaiznik Ananera ez baitago askotik. Arra-roa naitela pentsatuko zuten jendeak, baina ez zitzaidan iruditzen gauza handirik egiten ari nintzenik. Gure gauzak jasotzen ari nintzen. **Ikastaroak antolatzen ere hasi zintzen Aranzadin.**  
Hilean igande goiz bitan, aditu bat ekartzen genuen San Telmora gai bati buruz artzitek. Klasea eta etnografia izaten ziren. On Jose Migelek esplikatzeko zuten gaita, eta, gero, horri buruz hitzaldia ematen zuten aditu batzuk. Gai hori nola landu irakasten ziguten. Ikastaro haiek kultura biguna bihurtu genituen. Mintegiekin antolatzen hasi ginen, eta orduan uirbertatzeak ikasle asko hasi ziren etortzen. Orain ere lan handia egiten ari dira Aranzadin. Kidea nola orain ere.

**Bilbore etorri zirenean asko aldatu al zitzaizun bizi-modu hura?**  
Informazioa biltzen jarraitu nuen, eta oraindik ere badakizk argitaratu gabeko informazioa. Laburu eta Elmirerako egint ditut lanak. Argitaratu gabekoak, agian, argitaratu behar harko nituzke. On Jose Migelek beti esaten zigun ondo ez badago ere argitaratzeko. Aitzetik datozenik hobetuko dutela puztea, baina gu ari garela abiapuntu ematen. Hemen umeeekin eta bizi-modua antolatu nuenen, beste gauza batzuetan sartu ginen. **Ikastolen sorreran oinarritzeko?**  
Bai. Gure umeei eskolalarik sasoia etorri zitzaizenean, baziren ikastolak ezetaten. Gure etxean ez, zeren Maria Angeles Garai gure umeen andereak nahigo izan zuten umeei haren etxera joatea. Gero, Tere Roturetaren senarrak Elkano kaleko seigarrenean alokairu zenuen etxea hutsak jarri zen, eta Ferrik esan zuen hura zela urea. Ikastetxe ofiziala egin behar genuela pentsatu genuen, eta mugitzen hasi ginen. Julia Berroyalibiz izango

zen gure zuzendaria, bazeukan, eta maistra titulua. Eskola nazionala egiteko paperak egin genituen. Artzapezku-tzara joan ginen, eta agiri bat alera genuen kristauak ginele esaten zuela. Elizen onirina eskatu genuen, eta eman egin ziguten. Ez dakit bazekiten gu zer pentsatzen ari ginen, baina eman egin ziguten baimena. Euskaltzaindiak ere eman zigun agiri, esanez euskaraz irakatsiko genduela. Ez gaitzelaniz eta euskaraz. Esaldi horiek asko balo izan zigun gero. Inspektorea etorri zen, baina guk bapertuen baimen guztiak. Apiril batean heldu zitzaizgun baimena, eta pentsatu genuen emako genituela eskola agiritu gabe, eta apirilaren bertan zabaldu genuen ikastola. 50 bat urte genuten ordurako.

**Liburuk, irakasleak... euskaldunak biltu beharke izan, ez?**  
Lan gozperia izan zen. Denetarik egiten genuen: diruzintza, andereak biltu, liburuk biltu... Bakoztatzen egin lan izan ginen eskola irekitzera. Gaurera arte egoten ginen bertan. Gaitoxten gineerako ordezko gende-

kan, Xabier Peñak lagundu zigun asko liburuekin. Gerra aitroko gozperia liburuk, Xabierro, berreskuratu genituen. Lehenengo udan ezin izan genuten ordaindu irakatsit. Ez zen, beraz, gure abertze-latasuna bakarririk, anderefoena ere bai. Bederatzi urtez euzte genion ikastolari, baina legeak asko gozperia ziren. Je-lastokioa, baina bakoitzeko metro karratu kopuru handia. Liburu berriak. **Ikastola, etxea... Denok zintzen emakumeak?**  
Ardua handia zen, eta denok genuekin gure ordezkoa izan ere, anak ginen guztiok, eta, gaitoxte beste ezere gertatuta ere, ardurak bete egin behar ziren. Arkitxetok lanak Nikolai Madariagak egin zituen, eta nire senarra, Jose Mari Mujika, arduratzen zen obrak egitez. Ezer erosi behar genuenean, poltsa pasatzen genuen. Lan handia genuekin ikastolan, eta etxean ardua ere bai. Lan handia izateak taldea akzioan egin nintzen. **1980tik 1988ra, berri, Eusko Musuko zuzendaria izan zinen. Berri ere etnografiara buelta.**  
Ordura arte etnografiaren egindako lana beste era batean jartzeko aukera eman zidan musoak. **Hari eta honi galdetza ibili**



JON HERNÁIZ / AGACÓN PRESS

ARANZADI	DOTRINA	IKASTOLA	EUSKAL ZINTZA
«Herriaren alde lan egiteko aukera neukala ikusi nuenen sartu nintzen Aranzadin zientzia ekartearen»	«Abade batzuek barre egin arren, moldatu ginen. Frantzitik ekarri genuen euskarazko dotrina»	«Euskarazko ikastetxe ofiziala egin behar genuela pentsatu genuen, eta mugitzen hasi ginen»	«Ebera delitu duten dantzari guztiak lagundu diet ahal izan dudana guztia; ez dakit nahikoa izan den»
zen gure zuzendaria, bazeukan, eta maistra titulua. Eskola nazionala egiteko paperak egin genituen. Artzapezku-tzara joan ginen, eta agiri bat alera genuen kristauak ginele esaten zuela. Elizen onirina eskatu genuen, eta eman egin ziguten. Ez dakit bazekiten gu zer pentsatzen ari ginen, baina eman egin ziguten baimena. Euskaltzaindiak ere eman zigun agiri, esanez euskaraz irakatsiko genduela. Ez gaitzelaniz eta euskaraz. Esaldi horiek asko balo izan zigun gero. Inspektorea etorri zen, baina guk bapertuen baimen guztiak. Apiril batean heldu zitzaizgun baimena, eta pentsatu genuen emako genituela eskola agiritu gabe, eta apirilaren bertan zabaldu genuen ikastola. 50 bat urte genuten ordurako.	kan, Xabier Peñak lagundu zigun asko liburuekin. Gerra aitroko gozperia liburuk, Xabierro, berreskuratu genituen. Lehenengo udan ezin izan genuten ordaindu irakatsit. Ez zen, beraz, gure abertze-latasuna bakarririk, anderefoena ere bai. Bederatzi urtez euzte genion ikastolari, baina legeak asko gozperia ziren. Je-lastokioa, baina bakoitzeko metro karratu kopuru handia. Liburu berriak. <b>Ikastola, etxea... Denok zintzen emakumeak?</b> Ardua handia zen, eta denok genuekin gure ordezkoa izan ere, anak ginen guztiok, eta, gaitoxte beste ezere gertatuta ere, ardurak bete egin behar ziren. Arkitxetok lanak Nikolai Madariagak egin zituen, eta nire senarra, Jose Mari Mujika, arduratzen zen obrak egitez. Ezer erosi behar genuenean, poltsa pasatzen genuen. Lan handia genuekin ikastolan, eta etxean ardua ere bai. Lan handia izateak taldea akzioan egin nintzen. <b>1980tik 1988ra, berri, Eusko Musuko zuzendaria izan zinen. Berri ere etnografiara buelta.</b> Ordura arte etnografiaren egindako lana beste era batean jartzeko aukera eman zidan musoak. <b>Hari eta honi galdetza ibili</b>	lege berria zabaldu zuten esanez emako bakoitzak bere parrokiari egin beharke zuela jantziak. Ordura arte San Bizentzen egiten zuten gure emako guztiak. Eliza guztietara joan ginen baitan-baitan. Abade batzuek barre egin ziguten, baina gu moldatu ginen. Frantzitik ekarri genuen dotrina euskaraz. 70 katekisia izan ginen. Irakasleak eta ordezkoak. Don Jose Maria Remenierak lagundu zigun asko. Erroman ikasi nuen zelan dotrina irakatsi, eta hark guri irakasten zigun, guk umeei irakatsiko. <b>Franso hilesten, gertatu, Katasuna heldu zen, eta, 'Deia'-ko sartzaleetako izan zinen.</b> Administratzaio Kontseiluan egon nintzen hainbat urtean. Esan zigutenean egunkari euskalduna sortuko zela eta agurka-apurka euskaraz izango zela akzioan egin nintzen. <b>1980tik 1988ra, berri, Eusko Musuko zuzendaria izan zinen. Berri ere etnografiara buelta.</b> Ordura arte etnografiaren egindako lana beste era batean jartzeko aukera eman zidan musoak. <b>Hari eta honi galdetza ibili</b>	<b>zara beti ohiuren berri batuz, baina zure gai kutuna euskal dantzak onen dira.</b> Duela urte asko, Urbelteko dantzarako jantziak behar zituen Argia dantza talderako. Ordurako, jantziak berri josiak neukan. Irusten nuen Zerainen amonek buruko zapia eraman zuten zuela, baina amek ez. Ordian pentsatu nuen paltzen art zela, eta hori buruz galdetzen hasi nintzen. Argiako espata dantzarantzat egindako boaleko orduak ere erabiltzen omen dituzte; beraz, hain gaitziki ez genituen egin. Dantza talde askorekin egin dut lan: Lu-reta, Bizkai Euskal Folklore Elkarte, Galdakoko Andrea Mari... Ebera delitu duten dantzari guztiak lagundu diet ahal izan dudana guztia. Ez dakit nahikoa izan den. <b>Baia ahal izan dudana guztia izan da. Mundu bi bizi izan dituzu, baina, batez ere, euskal munduaren alde egin duzu lan. Beste mundu hark zertan lagundu dizu?</b> Erakutsi dit bizi-modu, jende eta herri diferentziak daudela eta bakoitzak baduela bere nortasuna. Neurea gehiago maitatzen lagundu dit kanpokoak ezagutzeak.

AIZKORA ▶

## Erasun, Urrezko Aizkoratik at

Etxebesteren aurka galdu zuen; Rekondo leitzarra, berriz, aurrera

NOELIA LATABURU

Juan Manuel Erasun Urrezko Aizkoratik at geratu zen asteburuan Asteasun. Bigarren kanporaketa honetan Joxe Etxebesteren aurka aritu zen hirugarren mailako irabazlea, eta iragarpen guztien aurka Zizurkilgoa txapelketatik at geratu da. Erasun «batero gustura»

aritu ez zela aitortu zuen. Hasiera ona izan zuen eta mendean hartu zuen kanporaketa, lan erdietan hamalau segundoko aldea atera baitzion Etxebesteri; azken unean, ordea, pot egin zuen eta bere aurkariak aldea atera zion erraztasunez.

Bestalde, Jon Rekondo leitzarrrak garaipena eskuratu zuen gazteen txapelketan Lekunbe-

rrin Aldaperen aurka, bukaeran alde ikaragarriko emaitza lortuz. Lau kana-erdiko eta bi 45 ontzako lana zuten, eta lan erdietarako minutu bat eta hamar segundoko tartea ateratzen zion Rekondok Aldaperi. Denborei dagokienez, 15 minutu eta 2 segundo behar izan zituen Leitzakoak; Aldapek, berriz, 19 minutu eta 32 segundo.



Juan Manuel Erasun. K. ALDUNTZIN

ASTEASU ▶ HERRI KIROLAK

## Euskal giro bikaina Euskal Giroan

Ehunka lagun bildu zituen atzo goizeko festak Andazarrateko parkean

N. LATABURU

Batzuentzat azken jai eguna izan zen atzokoa eta Asteasuko Andazarrateko parkean izan zuten zer ikusi eta gozatu, bertan antolatuta baitzen Euskal Giroa izeneko herri kirol saioa. Ehundaka lagun gerturatu ziren goiz guztian zehar 11:30ean hasi ziren probetara eta giro bikaina sortu zen bertan. «Lan handia izan dugu baina goiza ondo igaro da», aitortu zuen Agustin Aizpuru antolatzaileak. Idi probak, motozerra ikuskizuna, zaldi lasterketak eta aizkolariek bete zuten

agenda. Eta izerdien ostean, barruak ondo asetzeko aukera izan zuten Izutzunen eginiko bazkarian. Ikusleen artean ere hainbat produktuk osatutako saski bat zozketatu zen eta Joxe Mari Uranga gaztea izan zen zorioneko.

Euskal Giroa bigarren aldiz egin zuten atzokoan, izan ere duela hilabete eta erdi antolatuta zen herri kirolen saio berezi hau lehen aldiz Andazarrateko parkean eta Agustin Aizpuruaren esanetan ez da azkena izango, «Eguberri aldera hirugarren edizioa antolatzeko intentzioa» baitute.



Zaldi lasterketan bost bira eman behar izan zituzten. N. LATABURU



Gogor aritu ziren aizkolariek iparreko haritza mozten. N. LATABURU

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

**Villabona-Aiztondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Ajiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. (Tolosa). 943 670 128  
Gimeno, A. Elbarren, 52 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_public@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoetaldea.** 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitzaldea.** 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

**Teklatua.** Roland VA7 markako teklatua saltzen da. Deitu 943 11 77 38 zenbakira.

AZOKA ▶

## Oporraldiari esker, bisitari ugari izan da ohiko azokan

Ez ohiko jendearekin batera, berritasunak ere agertu dira barazki eta landaretan

PABLO ALBERDI

Larunbateko azokan ez ohiko bisitari asko ikusi ahal izan genuen Tolosan. Herri-tar askok kanpora irteteko aukera baliatu zuten eta, bestalde, egun hauetan gure inguruan dabiltzan bisitari ugari ere, gure azoka ezagutzeko aukerarik ez zuten galdu.

10:30ak aldera hasi zen bazia postuetan, eta goizaren bukaeran, salmentak ez ziren batera makalak izan.

Berritasunak ere ikusi genituen, bai Zerkausan, baita Berdura plazan ere. Zerkausan aurtengo lehenengo zainzuriak salgai izan ziren, 15naka salduak, barazki eskaintza izugarriaren barruan. Berdura plazan, berri-zen, landare apaingarri berri asko ikusi genituen: krabelina, alisuma, azalea japoniarra, dalia edota surfinia, besteak beste. Baratzeko ere landare asko zegoen, hauen artean mota askotako piperlandareak aurkeztu zituzten.

26KO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Krabelina	4,80	
Azalea japoniarra	7,00	10,00
Dalia	2,30	
Geranio hiedrak	1,90	2,50
Surfinia	2,80	
Piperrak	0,20	
Germikako piperrak	0,20	
Piper txorizeroak	0,20	
Piper handia	1,10	
Haritz amerikarra	0,70	1,00

**Bertako produktuak**

Ardi-gazta	14,00	14,00
Gezi sagar	4,00	5,00
Tolosako babarrunak	8,00	12,00
Porruak	2,00	5,00
Zerbak	1,00	2,00
Letxua	1,00	1,25
Irasagarra	3,00	6,00

**Produktu ekologikoak**

Inbaurrak	4,00	6,00
Azenarioak	2,00	2,50
Baratzuriak	1,60	6,00
Aza	2,50	3,00
Mermelada	3,00	3,60
Arrautzak	3,50	

ABERRI EGUNA ▶

# 'Urrats sendoak ematen' adierazpena herriz-herri

Tolosaldeko ekitaldietan Udalbiltzak egindako adierazpena berretsi dute

JAIONE ASTIBIA

Tolosaldeko hainbat herritan, Udalbiltzak egindako deialdiari jarraiki, Aberri Eguna ospatu zuten igandean.

Horrela, eguerdi aldera Adu-na, Anoeta, Asteasu, Ibarra, Le-aburu, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil elkar-rretaratzeko burutu zituzten herriko udaletxe atarrietan. Gehienetan txistulari eta dan-tzariekin ikurrinari omena egin zioten eta ekitaldi institu-zionalaren ondoren, hamaike-takoa izan zuten.

Esan behar da, ekitaldietan, Udalbiltzak aurtengo Aberri Egunerako kaleratutako *Urrats sendoak ematen* adie-razpena irakurri izan zutela. Idazki honekin «Euskal Herria-ren aldeko aldarrikapenean Udalek oso eginkizun garrantzitsuak» izan dutela nabarmen-du zuten, horren harira Udalak eragile izan diren hainbat mu-garri historikoren aipamena eginez, 1999ko irailean Udalb-iltza beraren sorrera kasu. Ondoren «zaticatuta dagoen herri honetako nazio erakunde bakarraren» ibilbideari erre-pasoa eginez jarraitzen zuten adierazpenak, hain zuzen ere urte-urteko aberri egunetako leloak oinarri modura hartuta. Aurtengo kasuan «berezi-tasun» modura jotzen zuten eta «arreta osoa merezi duen gertakaria» zionez, «Gatzaka Kon-pontzeko Oinarrizko Hitzar-men Demokratikoa 30 eragile politiko sozial eta sindikalek si-natu izana». Ekintza hau «Eus-kal Herria aurrera doan seina-le» gisa hartzen dutela zioten adierazpenean. Printzipio ho-riekin bat eginez, bukatu zituz-ten ekitaldi instituzionalak, ez, ordea, aurtengo Aberri Egune-an ere «alderdien protagonis-moa herritarrei nagusitu zaie-la», baieztatu gabe: «Hautes-kunde lehia pil-pilean da Euskal Herriko zati batean eta sufragio unibertsaltasuna kin-ka larrian dago», zioen ida-tziak, gertaera hori «gure Her-riaren errealitatearen isla» dela ziurtatuz batera.

Hain zuzen ere Udalbiltzak Aberri Egun bateratuak egite-ko deia egina bazuen ere, al-derdi bakoitzak bere kabuz osp-atu zituen ekitaldiak.

Baina egun horretako ospa-kizunez baliatu zenik ere izan



**Tolosa.** Udalbiltzak egin deialdiarekin bat eginez, Tolosaldeko hainbat herritan egin zituzten ekitaldiak, aurtengo *Urrats sendoak ematen* adierazpen instituzionala plazaratuz. Iruditan Tolosakoa. HITZA

zen, Leaburu kasu, Aberri Egu-neko ekitaldiekin batera, Saha-rako Guelta herriarekin anaiki-detzeko emandako lehen urra-tsak ospatu baitzituzten.

**Gueltarekin anai**

Horrela, Euskadiko Frente Poli-sarioko ordezkaria, Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak eta bertako ordezkari eta he-rritarrak ere hantxe zirela, Anaitasunaren plaka jarri zu-ten udaletxe atarian, euskaraz eta arabieraz, bi herri hauen el-karretaratzearen lekuko gisa. Han ere beste hainbeste egi-nen omen dute. Herriko dan-tzarien emanaldiaren ondoren, hamaiketako egin zuten herri-ko ostatuan.



**Leaburu.** Aberri Eguna Saharako Guelta herriarekin anaitasunezko lehen oinarriak ezartzeko baliatu zuten. HITZA

**iragarki laburrak ▶**

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88

INMOBILIARIA ETA ASEGURAK  
**ETXESAGASTI**

**Irura.** Eraikuntza berriko etxea. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Eguzkitsua. Garaje eta trastelekua.

**Etxesagasti.** 943 696 856.  
**Tolosa.** Eraikuntza berria. 85 m2-ko etxea, bi terraza, garajea eta 100 m2-ko txokoa bainugelarekin. Giltzak irailean. Etxesagasti. 943 696 856.  
**Ibarra.** Eraikuntza berriko etxebizitza altu polita. 2 logela. Trastelekua. Garaje aukera. 42.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.  
**Zizurkil.** Erabat eraberritutako etxebizitza bi logelarekin. Dena kanpoaldera. 3 balkoiekin. 33.800.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.  
**Zizurkil.** 3 logelako etxebizitza. Erdizka eraberritua. Igogailua. Trastelekua. 36.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.  
**Villabona.** 72 m2. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela.

Eraberritua. Trasteleku handia. Etxesagasti. 943 696 856.  
**Andoain.** Mordenoa. Kapritxo eraberritua. 70 m2. Argitsua. Trastelekua. Etxesagasti. 943 696 856.  
**Andoain.** 104 m2 erabilgarri. 4 logela, 2 balkoi. Berritzeko. Ikuspegiekin. Trastelekua. Etxesagasti. 943 696 856.  
**Zizurkil.** Bakarkako etxea. 110 m2 X 3 altuera. 2.500 m2-ko lursaila. Kokapen ona. Etxesagasti 943 69 68 56.  
**Eskaera handia** dela eta, etxebizitzak, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan. Ibaron [zerrenda dugu.](#)

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 29a, asteartea ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aiztolekueta, Aizua, Alburuz, Añeta, Añiza, Alzo, Amadeite, Anorta, Anso, Balamain, Balaranta, Berastegi, Berrota, Etxebarri, Herrialde, Ibarra, Itxasgalea, Iturza, Legorri, Leizola, Leizola, Oñena, Oñena, Tolosa, Villabona, Zuzuki  
besteriak: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurjaritza, Kultura Saia

943

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldean



beroa

14

hotzena

12

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldean



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: ez

Albi: ez



Pagomari: ez

Igaratza: ez

943

ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak, harpide egiteko...)

30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Anoeta-Irura.** Xakean jolasteko helduen taldeko bat sortu nahi dute, eskola-orduetan. Izena eman bi udalebketan.

**Anoeta-Irura.** Autodefentsa ikastaroa antolatu dute apirilaren 5etik ekainaren 28ra. Izena emateko epea hilaren 31 arte bi udalebketan.

**Gaztelu.** Ludoteka 10:00etatik 13:00etara 8 urte arteko haurrentzat.

**Tolosaldea.** Apirilaren 10ean 51ko kintoak elkartuko dira. 11:00etan meza San Frantzisko elizan hildako kintoen alde eta 14:00etan bazkaria Mendi-alde jatekian. Izen-ematea: 943 65 45 92 (Jose Maria Tolosa), 943 52 54 41 (Jose Mendizabal) eta 943 65 17 99 (Mendi-alde jatekian).

**Villabona.** Aizkardi elkartearen 37. ibilidia egingo dute igandean. Izena emateko, deitu 943 69 44 58 telefonora edo lokalera azaldu ostegunean 21:00etatik 22:00etara.

### ERAKUSKETAK

**Tolosa.** Ana Jesus Ansorenaren zeramikak Saikin tabernan.

**Tolosa.** Matxin Labaien.

Koadroak. Lanbroa taberna.

**Tolosa.** Iñaki Azpilikueta

koadroak Aranburu Jauregian.

**Tolosa.** Luis Mari Nuñezen

marraxiak Fronton kafetegian.

### ZINEMA

**Alegia.** *Monster ball.* Bihar 21:30ean Gaztebexan.

**Tolosa.** *Blade trinity.* Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean. Ikuslearen eguna.

# Gaztetxoei zuzendurikoak

**IBARRA ▶** Kultura eta Gazteria batzordeak Bazko Asterako haur eta gazteei zuzenduriko egitarau berezia antolatu du gaur hasi eta ostirala bitartean



luz, Benito Izagirre kultur etxean Kixka taldeak umeentzat eskaini zuten *Bolaluma* antzerkia. Aste honetan ere bada antzerkirik. INIGO TERRADILLOS

### NOELIA LATABURU

**E**txeko gaztetxoek euren Bazko oporraldiaz gozatzeko aukera izango dute Ibarren antolatu den kultur egitarauari esker. Kultura eta Gazteria Batzordeak proposaturiko egitasmo honi esker gaur hasi eta ostirala bitartean, gazte zein guraso Benito Izagirre kultur etxean doan izango diren ekitaldietan parte har dezakete, goizero 11:30ean.

Gaur bertan hasiko da, beraz, lehen saioa, bideo emanal-

di batekin. Biharkoan, Kiki eta Moko pailazoaren bisita hartuko du Ibarako Kultur Etxeak. Etzi ere izango da emanaldi berezia, Telmah taldearen *Pirataklown*, hain zuzen ere.

Eta, azkenik, hilabete berriarekin bat eginez, Peter Roberts-en *Marratxo, koloreen iratxoa* lana taularatu dute ostiralean. Marratxo iratxoaren istorioa kontatuko dute eta umeek berarekin batera mundu majiko batean murgildu ahalko dira. Marratxo iratxoak bidaia bat egingo du hainbat

herrialdeetatik barrena, eta jende ugari ezagutuko du bien artean: lehenik, zuhaitz harro eta zaputza. Txiki izena ezarriko dio Marratxok; ondoren, inurri gozoa, Handi izendatuko du hau. Bizipen guztiak biltzeko marratxok agenda eta arkatza majikoak erabiliko ditu. Aurrera doala, pertsonaietariko batzuk igelak jango dituzte, eta beste batzuk marratxo jan nahian ibiliko dira, saia eta suga, esaterako. Baina, gaztetxo ikusleak hori dituzte marratxok, gaitzerdi! Haiek aterako baitute

heriotzaren arriskutik. Marratxo iratxoaren eta umeen arteko adiskidetasun hori izango da, hain zuzen, bidaia bitxi honen larrialdi guztietatik libre ateratzeko agiria.

Lan honek umeen parte-hartzea bultzatzea du helburu bai eta euren arteko elkartzasuna sustatzea. Izango dute, beraz, lau egun hauetan zehar goiz atseginak igarotzeko parada Ibarako Benito Izagirre kultur etxeraino gerturatu nahi duten guztiak, oporrak ere dibertigarriak suerta daitezten.

## AGURRAK ▶



### URTE ASKOAN

Sixta Bengoetxea (Gaztelu).

Gaur 83 urte. Zorionak eta muxu handi bat Iriti eta Eñauti biloben partetik.



### URTE ASKOAN

Neia Iturriz (Amezketeta).

Alto urte bat. Zorionak eta muxu goxoak etxekoan eta bereziki amona Mariakelen partetik.



### URTE ASKOAN

Ane Dorronsoro Artola.

6 urte. Zorionak eta muxu handi bat Irene eta gurasoen partetik.

# HITZA, zorion agurren



Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!